

“Iraultzaileon porrot nagusia ez da materiala izan, mentala baizik”

Barbara Balzerani Italiako Brigada Gorriak talde armatu komunistako buruzagia izan zen. Aldo Moro Kristau Demokraziako presidentearen bahiketan parte hartu zuen 1978an. 21 urte eman ditu espetxean. Bartzelonan izan berri da *L'ho sempre saputo* (“Beti jakin dut”) eleberriaren katalaneko bertsioa aurkezten. 1998an *Compañera luna* liburu ezaguna argitaratu zuen, 2016an Txalapartak gaztelaniaratua.



Maria Colera Intxausti

@mariacolera

ARGAZKIAK: ORIOL CLAVERA

Zerk eraman zituen Brigada Gorrietan militatzera?

1970eko hamarkadan antagonismo sozialeko mugimendu gogor eta indartsua izan genuen Italian, iparraldeko fabrika handietako langileek eta ikasleek bat egin zutenean. Parlamentuz kanpoko ezkerreko taldeek borroka handiak egin zituzten hobekuntza sozialak eskatzeko eta errepresio bortitza jasan zuten. 1969an inoizko greba-ordu gehien egin zen fabriketan: bi milioi. Urte hartan bertan lehegailu batek hamasei hildako eragin zituen Milaneko banku batean, mugimendua

beldurrarazi eta estrategiaz aldatzera behartzeko asmo garbiarekin. Anarkistei leporatu nahi izan zieten ekin-tza hura, nahiz eta argi zegoen faxistek egin zutela, Estatuko instituzioen aginduei jarraiki. Horrek guztiak areago sendotu zituen gure usteak: ezin zela demokrazia burgesean sinestu hiltzaile hutsak zirelako. Lehegailu gehiago etorri ziren: Brescian, batzar sindikal batean, trenetan... Jende arruntari zuzendutako terrorismoa zen hura.

Bestalde, Alderdi Komunista aliatu zen Demokrazia Kristauarekin, alegia,

patronalaren alderdiarekin eta, horren ondorioz, mugimendu iraultzailea gero eta jazarpen handiagoa jasaten ari zen (heriotza-mehatxuak, hilketak...) eta oposizioa egiteko bide guztiak itxi zitzaizkion. Hortik borroka armaturako jauzia.

Nola gertatu zen jauzi hori?

1970ean Brigada Gorriak (BG) fabriketako arduradunen aurkako ekintzak egiten hasi ziren. Parlamentuz kanpoko ezkerreko beste talde batzuk ere hasiak ziren borroka armatuaren beharraz eztabaidatzen. 1973an Potere



Operaio, nik militatzen nuen taldea, desegin egin zen, talde legal batek jarduteko esparru guztiak agortuta zeudela ikusteak eragindako kontraesanen ondorioz. Gauza bera gertatu zen Lotta Continua-rekin. 1974an, Brigada Gorriek estrategian jauzi bat egin eta Mario Sossi epailea bahitu zuten. Jendeak gorroto handia zion oso espetxe-zigor gogorrak jartzen zituelako delitu arrunt nahiz politikoengatik. Ekintza harekin "Estatuaren bihotzera zuzendutako erasoaldia" delako fasea hasi zen. Fabriketako langileak ziren estrategia iraultzaile horren protagonistak, iraultza egiteko ardatz nagusia Estatuari eraso egitea zen. Orduan erabaki nuen nik BGetan sartzea.

Eta borrokatzera bultzatu zintuzten arrazoiak indarrean jarraitzen al dute?

Arrazoiak are sendagoak dira, egoera orduko baino okerragoa baita orain. Baina orduan genuen zerbait falta da orain: jendea eta erakundeak batzen dituen helburu iraultzaile bat. Joan den mendeko porrota ez baitzen gurea izan bakarrik, iraultza egin zuten guztiena

» “Aberastasunen metaketaren eta beharizan gero eta handiagoen logika irentsi dugu, ahazturik kapitalistak ez ziren herrien lapurreta eta esplotazioaren kontura egiten dela, gutxi batzuren onerako eta gehiengoaren kalterako”

baizik (Vietnam, Txina, Sobiet Batasuna...). Eta orain ikusten dugu egoera politikoa eta soziala okerrera doala, baina ez daukagu aurre egiteko indar politikorik, berriro elkartuko gaituen elkar-ulertzerik gabe.

Ez al zaizu iruditzen XX. mendeko porrotik handiena ez zela hainbeste izan erakunde eta proiektu iraultzaileen desegitea baizik eta bestelako mundu bat posible ez dela onartu eta dena aldatu nahi izatetik hobekuntza nimenen eskean ibiltzera pasa izana?

Erabat. Porrot nagusia ez da materiala izan, mentala baizik. Ezinezkoa da iraultzarako biderik zabaltea buruan ez badaukazu argi beste mundu bat posible dela, eta beste mundu hori sozialismoaren eraikuntza zen guretzat. Bide horrek huts egin du, bai, eta orain atzera begiratu behar dugu okerrak non egin ziren jakiteko. Eta sortu nahi dugun gizarte-ereduaz ari naiz hemen. Linealki garatzen den historiaren kontzeptuaren eraginpean jardun baitugu, pentsaturik gero datorrena hobea izango dela aurrekoa baino. Ikuspegi lineal horrekin aurrerabidearen logika kapitalista irentsi dugu, aberastasunen metaketaren eta beharizan gero eta handiagoen logika, ahazturik metaketa hori kapitalistak ez ziren herrien lapurreta eta esplotazioaren kontura egiten dela, gutxi batzuren onerako eta gehiengoaren kalterako.



HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”
Antoine de Saint-Exupery




Aho bizi

**Euskara erein eta hazi
kalean zein lanean
askatasunean**

EUSKA RALDIA

Belarri prest

LAB

Mendebaldean aurrerabideaz daukagun ikuspegia aldatu behar dugu, beraz, Walter Benjaminek esan zuenaren ildotik: posible zela historian gertatutako gauza batzuk ez gertatu izatea eta posible dela gertatu ez zirenak aurrerago gertatzea.

Erakunde armatu bateko buruzagia izan zinen, emakumeek gaur egun baino askoz presentzia gutxiago zeukaten garai batean.

Brigada Gorrietan sartu nintzenez mugimendu feministaren loraldia gertatzen ari zen Italian eta urte luzez ezkerreko taldeetan militatzen aritutako emakume asko talde feministetara joan zen. Nik asko kritikatu nuen bide hori, borroka interklasista, bakezalea eta elitista iruditzen zitzaidalako. Traizio moduko bat iruditu zitzaidan harreman estua neukan kide batzuen aldetik.

Nire esperientzia borroka armatuan emakume gisa oso ona izan zen. Ez Brigadak hobeak zirelako, baizik eta bizia jokoan jartzera daraman egoera batean zaudenean rola askoz eragin apalagoa daukate. Eta oso adierazgarria da Brigadetan izandako emakumezko militanteen kopuru handia. Borroka armatuan parte hartu zuten emakumeen ehuneko askoz handiagoa zen politika instituzionalean baino, bere genero-kuotak eta guzti, borroka armatuan emakumeek sentitzen zutelako politika zuzenean egitea zeukatela, gizonen menpe eta bigarren lerroan egon gabe.

Espetxean ere gertatzen da hori. Preso daudenean, emakumeek ez dute amaren edo emaztearen rola jokatu behar eta, paradoxikoki, halako askapen bat bizitzen dute eta hasten dira lehen egiten ez zituzten gauzak egiten.

Biktimei buruzko artikulu batean zenioen “biktimen kontua ogibide zentsuratzaile bat bihurtzen ari da. Biktimen eta borroaren kontrajartze metahistorikoa egiteko testuingurua ukatu eta beretzat nahi du hitzaren eta historiaren berreraikuntzaren monopolioa”. Zer diozu subjektu politiko bihurtu diren biktimizez?

Aldo Mororen bahiketaren 40. urteurrena dugu aurten eta berrogei urteotan kontakizun berri bat sortu da Italian eta munduko beste bazter batzuetan, iturrietara eta dokumentueta-
ra joz landutako historiografia baztertu

» “Borroka armatuan parte hartu zuten emakumeen ehuneko askoz handiagoa zen politika instituzionalean baino, bere genero-kuotak eta guzti”

eta oroimen indibiduala jarri duena erdigunean. Oroimen indibiduala oso interesgarria da, ez delako abstraktua eta berreraikuntza historikoaren muga zurrunak gainditzen dituelako. Baina egia da, halaber, historia ezin dela soilik biktimek sentitutako minarekin, hutsunearekin-eta osatu, fenomenoek hitz egiteari uzten baitzaio, norberak sentitutakoak hitz egiteko. Foko guztia ondorioetan jartzen da eta ezkutatu egiten dira kausak, dena ongiaren eta gaizkiaren arteko plano moral batera eramanez, gertakarien testuingurua guztiz alboratzen da.

Zure liburuan diozu “Asko ginen eta ez geunden bakarrik”. Subjektu kolektibo batetik hitz egiten duzu, kolektibitate bat osatzearen kontzientziatz. Nola ikusten duzu egun gailendu den subjektu indibidualizatu atomizatu?

Oso fenomeno bitxia gertatu zen 1960ko hamarkadan: Italiako hegoaldeko langile asko eta asko iritsi ziren iparraldeko fabriketara lanera, alderdi eta sindikatu handiekin loturarik ez eta bitartekaritzaren kulturarik ez zeukatenak. Horrekin batera, langileen seme-alabak unibertsitateira iristen hasi ziren modu masiboan. Eta haien helburua ez zen karrera egitea, hezkuntza beren klasearen askapenerako erabiltzea baizik. Bi indar horien arteko bat-egiteak eman zion indarra mugimenduari eta horri esker iraun zuen hainbeste Italian eta izan zuen halako itzal luzea. Gaur egun, ordea, 68a aurkezten digute gazte, lore eta musika kontu bat balitz bezala, eta ez zinez izan zena: klase-gatazka bat. Guk argi genuen klase batekoak ginela eta klase horren izenean eta alde borrokatzen ginen. ■



53. DURANGOKO AZOKA
2018ko abenduaren 5etik 9ra

DA!

ASKO DIRA

www.durangokoazoka.eus

ANTOLATZAILA

BABESLE NAGUSIAK

ERAKUNDE PUBLIKOAK

ERAKUNDE PRIVATUAK